

EUSKARA IKASTEN ARI DIREN HERRITARRENTZAT DIRU LAGUNTZAK ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZA .

Helburua:

Diruz lagunduko dira euskara ikastea helburu duten ikastaroak, herrian euskaraz bizitzeko aukera bultzatzea baita helburua. Ez da udal honen helburuetan sartzen ezagutza-maila altuko ikasketak diruz laguntzea.

Onuradunak:

- Euskaltegiara edo herrian sortzen den taldera euskara ikastera joan diren herritarrak. Ikastaroak trinkoak, arinak, luzeak nahiz motzak izan daitezke. Euskalduntze, alfabetatze, sakontze ikastaro eta antzerako ikasketak hartuko dira kontuan.
- Barnetegiara euskara ikastera joan diren herritarrak. Kasu horretan, ikastaroen gastuak bakarrik hartuko dira kontuan (ez egonaldi, garraio eta bestelako gastuak). Euskalduntze, alfabetatze, sakontze ikastaro eta antzerako ikasketak lagunduko dira.

Lagunduko ez direnak:

- EGA, 3. HE eta hortik goragokoak, eta goi-mailako urratsak (11 eta 12).
- Euskaraz egindako bestelako ikasketak
- Norbere lanbiderako hizkuntza-eskakizuna prestatzeko ikastaroak.

Bete beharreko baldintzak:

- Eskatzailea Ezkion erroldatuta egotea urte bat lehenagotik.
- Ikastaroa amaitzea.
- Ikastaroa ongi aprobetxatzea eta gutxieneko asistentzia izatea.
- Zerga-betebeharrak egunean izatea Udalarekin.
- 18 urte beteta izatea.
- Deialdi honetatik kanpo geratuko dira administrazio publikoren bateko langileak izanik, euskalduntze plan bereziren batean sartuta daudenak.

Aurkeztu beharreko dokumentazioa:

- * Udalaren diru laguntza eskabidea behar bezala beteta.
- * Nortasun agiriaren fotokopia.
- * Langabeen kasuan, ikasturteak iraun duen bitartean langabezian egon izanaren ziurtagiria.
- * Ikasleen kasuan, ikasturteak iraun duen artean ikasten egon izana frogatzeko matrikula orria.
- * Banketxe edo aurrezki kutxak sinatutako agiria, kontu korrontearen titularra bera dela egiaztatzen duena.
- * Banketxe edo aurrezki kutxak emandako agiria, matrikularen diru-sarrera egin dela egiaztatzen duena.
- * Euskaltegiak edo barnetegiak emandako ziurtagiria. Bertan argi eta garbi azaldu beharko dituzte honako puntu hauek:
 - o Ikasleak ordaindu duen matrikularen zenbatekoa.
 - o Ikasleak ongi aprobetxatu duen ala ez ikasturtea (hasierako maila, egin zaizkion probak eta amaieran gainditu duen maila).
 - o Ikasleak urtean zehar izan duen asistentzia. Agiri hori ikastaroa amaitzean aurkeztu beharko da.

Diru laguntzak banatzeko irizpideak:

- Lanean ari direnentzat: ikastaroaren matrikularen % 50 emango zaie, beti ere eskola orduen % 80ra joateaz gainera, HABEk ezarritako irizpideen arabera, ikasturteari dagozkion urratsak gainditu izanaren egiaztagiria lortu eta aurkezterakoan. Ez da bi aldiz emango urrats bera egiteko diru laguntzarik, ez eta laguntza beste inon emandakoa izanda ere. Gehienez 300 € emango dira(*).
- Langabezia duenentzat: ikastaroaren matrikularen % 65 emango zaie, ikasturteak iraun duen artean langabezia edo ikasten egon izana frogatzen dutenei, eskola orduen % 90era joan izanaren egiaztagaria aurkezten badute, HABEk ezarritako irizpideen arabera, ikasturteari dagozkion urratsak gainditu izanaren egiaztagiria lortu eta aurkezterakoan. Ez da bi aldiz emango urrats bera egiteko diru laguntzarik, ez eta laguntza beste inon emandakoa izanda ere. Gehienez 400 € emango dira.(*)

* Ezkioko Udalak eskumena izango du egokiak ikusten dituen kasu bereziak aztertzeko eta kasu berezi bakoitzari egokitutako erabakia hartzeko.

* Irizpide hauek guztiak urteko aurrekontuan zehaztutako kopuruen mende egongo dira; hau da, irizpide horiek jarraituko dira dirua banatzeko, betiere aurrekontuak ahalbidetzen duen neurrian. Horregatik, Ezkioko Udalak urteko aurrekontua onartzen duenean ezarriko du gehienez banatuko den kopurua.

Eskaerak eta dokumentuak aurkezteko epea:

- Eskaerak eta dokumentuak aurkezteko epea barnetegian edo euskaltegian ikastaroa amaitzen den egunetik hilabetera amaituko da.
- Eskaera aurrez eginez gero, **diru laguntza jasotzeko lehentasuna emango da:** aurrekontua egokitzeko edo zenbateko diru laguntza izango duten ziur jakiteko aukera egongo da. Eskaera guztiek Udalaren muga gainditzen badute, laguntzak txikiagoak izango dira.

(**) Ordenantzak ez du egoera ekonomikoaren arabera bereizketarik egiten, baina, gizarte laguntzailearen irizpideen arabera, Udalak diru laguntzak handitzeko aukera aztertu nahi du. Diru laguntza osoa ikasturte amaieran ordaindu beharrean zati bat aurreratzeko aukera ere kasu hauetan azter daiteke.(Hori guztia Udaleko gizarte langilearekin kontsultatu behar da.)

(*) Kopuruak ezartzeko erreferentzia AEK-k dituen tarifak izan dira. Hortaz, baliteke urtez urte eguneratzen joatea.

<http://goiztiri.blogspot.com.es/2011/09/1112-ikasturterako-eskaintza-oferta.html>